

BERMEOKO PORTUKO ANTOLAMENDU-PLAN BEREZIAREN HIRUGARREN ALDAKETA

D AGIRIA. ANTOLAMENDUKO GIDALERROEN AZTERKETA ETA EGIKARITZEAREN KUDEAKETA. 2021

D.1. SARRERA

Plan berezia azpiegitura publikoaren xehetasunezko antolamendua garatzen duen agiria da. Horren kudeaketaz Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saila arduratzen da, Garraio Azpiegituren Zuzendaritzaren bitartez.

Ondorioz, portuko azpiegitura horren obrak aipatu Sailak inbertsioa egiteko duen gaitasunaren arabera garatuko dira.

Portuko plan berezia osorik gauzatzeko behar den inbertsioaren zenbatekoak gutxi gorabehera emateko, beste hamabost urteko epean egin beharreko obren kostuaren hurbilketa bat egiten da; epe hori Bermeoko portuaren azpiegiturako eta hornidurako elementuak osatzeko ezarri da, hots, 2021tik 2035ra bitartekoa da, biak barne.

Azpiegiturako lan garrantzitsuenak hauek dira:

1. Iparraldeko kaiko bi eraikinen eraikitzea, SZNR_B01 azpizonan bata (aisialdi itsas erabileren azpizona) eta SZPS_B01 azpizonan bestea (arrantza azpizona).
2. Matxikorta kaiko zerbitzu eraikinaren eraikitzea, SZIC_B02 azpizonan kokatua.
3. Frantxuako eraikinaren gauzatzea (SZUC_B01 azpizonan).
4. Arrain lonjaren arraberritze- eta birgaikuntza-fasea.
5. SZUC_B02 azpizonako ekipamendu publiko erabilerako eraikinaren gauzatzea.
6. Kofradiaren zubia eraikitzea

Obra horiek guztiak portuko azpiegitura-lanak bezala har daitezke, horiek egitea beharrezkoa baita hainbat zerbitzu abian jartzeko. Edonola ere, portua kudeatzen duen Administrazioaz gain, beste Administrazio eta erakunde partikular batzuek parte har dezakete horien finantzaketan eta eraikuntzan; hau da, azpiegitura horietan jar daitezkeen zerbitzuak ustiatzeko interesa izan dezaketenek.

Lanak hiru etapatan egingo dira, eta bakoitza bost urte ingurukoa izango da. Etapa bakoitzean adierazitako obren kostua honako dokumentu honetan jasotzen da: E. Ekonomia eta finantza arloko bideragarritasun-azterketa.

D.2. ETAPA BAKOITZEKO OBRAK

Jarraian, etapa bakoitzean aurreikusitako lanak agertzen dira:

1. ETAPA

1. Iparraldeko kaiko eraikinaren gauzatzea, SZNR_B01 (itsas eta aisialdi erabilera) eta SZPS_B01 (arrantza) azpizonetan. Kapitaintzaren eraikina barne.

2. ETAPA

2. Matxikorta kaiko zerbitzu eraikinaren gauzatzea, SZIC_B02 azpizonan.
3. Frantxuako eraikinaren gauzatzea, SZUC_B01 azpizona.

3. ETAPA

4. Lonjaren birmoldaketa-fasea
5. SZUC_B02 azpizonako ekipamendu publiko erabilerako eraikinaren gauzatzea.
6. Kofradiaren zubia eraikitzea

Obra horiez gain, badira hirigintzako beste lan osagarri batzuk, Bermeoko portuko egungo zerbitzuak osatuko dituztenak.

Bilbo, 2021ko Maiatza

ARKITEKTUAK

Izpta.: Anton Agirregoitia Aretxabaleta - Iñaki Peña Gallano - Ibon Pascual Arechavaleta